

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Santiagorako erramesek 112arekin komunikatzeko beste puntu bat izango dute Lepoederreko Muinoan

*Donibane Garazi (Frantzia) eta Orreaga arteko segurtasuna wifi-estaldurako bi gunekin ere sendotuko da*

Miércoles, 17 de septiembre de 2014

Donibane Garazi (Frantzia) eta [Orreaga](#) arteko Santiago bideko [etapa](#) egiten duten erramesek [112-SOS Navarra](#) Larrialdia Kudeatzeko Zentroarekin komunikatzeko zuzeneko puntua izango dute Lepoederreko Muinoan. Izandorreko aterpean jadanik badagoen puntuari gehitzen zaio horrela, bide-zati horretan izan daitezkeen gertakizunen abisua errazteko, gogorra eta estaldura telefonikorik gabeko gunea den zatia.



Morrás kontseilaria eta Salanave-Péhé lehendakariordea etapan zehar teknikari batek emandako azalpenak entzuten.

Bi puntu horiei esker ere, erramesak Internetera konektatu ahalko dira wifiaren bidez, beren gailu mugikorrek (telefonoak, tabletak...) komunika ahal daitezzen edo beren intereseko informazioa kontsulta dezaten, etapa amaitzeko falta zaien ibilbidea eta meteorologia-informazioa, esaterako.

Jarduera horiek [Safar Pyrenees](#) lankidetzaren proiektuaren barnean sartzen dira, eta Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu frantsesak elkarrekin egiten dituzte Pirinio aldeko larrialdietarako koordinazioaren arreta hobetzeko.

Gainera, komunikatzeko puntu horiek proba modura jarriko dira, hau da, erramesek zer erabilera egiten duten analizatu ondoren eta puntu horiek dakartzaten mantentze-lanen beharrak analizatu ondoren (bandalismoa, meteorologia-baldintzak...) Bentartea eta Lepoeder artean beste lotune batzuk jartzeko aukera aztertuko da, Santiago bideko etapa horrek zer telekomunikazio eskasak eta zer gogortasun duen kontuan hartuz, eguraldi txarra egiten duenean bereziki.

## **Ibilbidea, *in situ***

Bide-zati hori, hain zuzen, Nafarroako Gobernuko eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuko kideek osatu dute berriki, honako helburu honekin: erromesen segurtasunean zer arazo aurkezten *dituen in situ* ezagutzeko, jadanik hartutako neurrien funtzionamenduaren berri izateko eta hobekuntza-proposamenak zein diren jakiteko.

Nafarroako ordezkartzaren buru Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás izan da, eta, harekin batera, Barneko zuzendari nagusi Patxi Fernández. Nafarroako Larrialdi Agentziako teknikariek ere parte hartu dute, eta baita honako hauetako zuzendaritza nagusietakoak ere: Informatika eta Telekomunikazioak: Ingurumena eta Ura; Turismoa eta Merkataritza; eta Erakundeekiko Harremanak.

Frantziako ordezkartzatik, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakariorde Yves Salanave-Péché izan da, bai eta erakunde horretako ordezkariak eta Departamentuko Sute eta Salbamenduko Zerbitzuetako ordezkariak ere.

### **Seinaleak hobetzea**

Safer Pyrenees proiektuak ere Donibane Garazi eta Orreaga arteko etapako puntu batzuetan seinaleak hobetzea jasotzen du, erromes gehien galtzen direla egiaztatutako puntuetan hain zuzen, Bentartea eta Lepoederren dauden elkarguneetan, adibidez.

Halaber, etaparen hasieran bi seinale adierazgarri jarriko dira, eta haietan erromesei gomendatuko zaie Arnéguy eta Luzaideko beste ibilbidea hauta dezaten neguan edo meteorologia-aurreikuspena txarra bada, errazagoa eta seguruagoa delako.

Gogora ekarri behar da, azken urteotan Foru Gobernuak zenbakitutako egurrezko 52 zutoin jarri dituela Bentartea eta Lepoeder artean (4,5 km); hala, norbait galduz gero ere, 112-SOS Navarra larrialdietarako telefonora deitzen duenean, ikusi duen azken zutoinak zer zenbaki zuen esan ahalko du. Bi metro inguruko altuera du, bide-zati horretan neguan elurte handiak izaten baitira.

### **Etaparen deskribapena**

Donibane Garazi eta Orreaga arteko Santiago bideko etapa mendiko ibilbidea gogorra da, eta neguan arriskutsua izan daiteke, lainoa eta elurragatik. Urtean 70.000 erromesek baino gehiagok osatzen dutela kalkulatu da, eta 30-100 arteko gertakariak izaten dira, urteen arabera. Sarritan, bilaketa- eta erreskate-lanak egin behar izaten dituzte. Gainera, inguruko telekomunikazioak eskasak dira.

25 kilometroko ibilbidea da eta erromesek 1.250 metroko desnibela gainditu behar dute, Donibane Garaziko 165 metroko altueratik Lepoederreko Muinoan dauden 1.430 metrotaraino.



Taldea etapako seinaleetako bat aztertzen.